

Itsasoar guztioi adeitasunez,

Jarraian, 2019ko otsailaren 16an burutu genuen HERRI BATZARREKO AKTA jasotzen da.


1.- Abenduko Batzarraz geroztik Udalak emandako pausoak eta informazioa:

Azpiegiturak:

- Alegiako irteera: nahiz eta bidegurutzetik irteterakoan ibilgailuek bere tarteko galtzada izan dezaten ahalegin guztiak egin diren, Foru Aldunditik hasieran esandakoa mantendu da, arauak ez baitu uzten azelerazio karririk hain tramo txikian egiten, segurtasunagatik. Era guztietara obra honi esker oinezkoen segurtasuna bermatzen da eta aurrerapauso handitzat jo da. Zebrabidean albo banatan farolak doaz, baina autobus geltoki inguruan argia izateko Gabiriako Udalak jarriko ditu 4 farola.
- San Lorentzoko bidea eta ura bertaratzea. Bidean 20 kamioikada “todo-uno” materiala bota da lokatz gehien zegoen bi guneetan. Horrela kotxez joateko modua berriro ere izango da. Baina une batean, nahiko bazterrean, luizia egin da eta eskollera egiteko prozesua martxan jarri beharko da. Bestalde, iturria eta ganadu-aska martxan daude. Iturrian ura korrientean jarri da edangarria izateko eta ganadu-aska flotagailuarekin.
- Madurako uren kanalizazioa Foru Aldundiak hormigonatuz burutu du autobideko uren bideratzea, zelaietan zabaldu gabe. Udalak gorago erretena egiten jarraituko du eta herri-bidea errekuiperatzen bukatzeko, falta den hesia egin.
- Alegia-Uribar bide berdearen hurrengo fasea. Bukatu dira lur-jabeekin egin beharreko kontratuen adostasunak eta asfaltatzea eta hesitzea izango dira hurrengo lanak.
- Itsasoko gunearen urbanizazioa: asfalto inpresoz bukatu da zorua, estetikoki oso erakargarri, eta otsaila bukaerarako udaletxe sarrera-ataria amaituta nahi da. Obrak uste baino luzeago jo du, enpresari gertatu zaizkion hainbat arrazoiengatik.
- Alegiako auzo-konpostagunea: martxoan jarriko da gune berri hau martxan, lanak aurreratzen ari dira-eta. Horma egin zaio guneak Birziklagunearen parean izan dezan zorua. Pertsona arduradunaren deialdirako aurkeztu den bakarra izango da kontratatua, martxotik aurrera, astean hiru orduz, mantentze lanak egin ditzan.
- Altxigarraga-Mandubia bidearen egoera. Jada pinuzaleak kontratatuta hasi da eskabadoraz enpresa bat lanean lurak erretiratzen bidetik, baina Altxigarragan pilatu diren lur-kamioikadei irteera eman beharko diete. Baita eskabadora txikiagoarekin bide ertz guztian erretena egin ere, “todo-uno”-a denean bota aurretik. Aparejadoreak jarraipena egingo dio eta baita suertatu den luizia baloratu ere.
- Kaminora zihoan telefono eta zuntz hari-posteak txikitu dira basoko pinuak ateratzerakoan eta etxe batzuk telefonorik gabe eta zuntz kaxa berreskuratu beharrean geratu da. Udalak Telefonitari parte eman eta zer gertatu den ikertzen ari dira.
- Alegiako ur-hodien hobekuntza. Foru Aldundiari dagokio arazoari konponbidea ematea eta udalak eskatuta ari dira aztertzen egoera.

Deialdiak:

- Parte-hartze prozesua (Itsaso 2030). Diruz laguntzen den deialdi batean parte-hartze prozesu baterako proiektu bat aurkeztuko dugu udal bezala, Siadecorekin lantzeko. Helburua da Itsasoren etorkizunerako giltzarriak zehaztea: zer daukagun, zer nahi dugun, zer ahal dugun, eta nola gauzatzen joan (etxebizitzak, enplegua, komunikazioak...). Guztiok parte-hartzeko dinamikak eskainiko dira.
- Landaola 2019: deialdi honek nekazal ingurunea hobetzeko proiektuak laguntzen ditu eta aurten Alegiako auzo-konpostagunearen gorpuztea eta birrintzailearen eskaera egin da, konpostaren kalitatea areagotzeko (bai Itsason bai Alegian) eta herriko edozein etxeetan ere bai. Gainera



baserrietan fruta arbolen adarrak txikitzeko ere erabili ahal izango da.

- Landaola 2020 eta hurrengo urteetarako deialdia. Aurtengo azarorako deialdi honetara aurkeztu nahi ditugun proiektuen lanketa egiteko eskatu da. Aukera desberdinak aurkeztu dira eta Batzarraren amaieran eginiko hausnarketan hauei eman zaie lehentasuna:
 - Kizkitzako pagadia zaharberritzea eta igoyerako bidea hobetzea.
 - Lur sail publikoak izateko udalak urratsak ematea.
 - Herriko produktuak balioan jarri eta sustatzea (lan taldea osatu, zer daukagun jaso eta zabaldu, ikusgarri egin, nutrizio ikastaroa, sukaldaritza ikastaroa bertako produktuekin, e.a.)

2.- Aurrekontuak 2019

Sarrerak: 448.875,26€

Espero ditugun beste sarrera batzuk:

Leader 2019

Udaletxeko ranpagatik

Redesa obragatik

Landaola deialditik

Industrialdeko obragatik

Gastuak:


Berriak:

Auzo-konpostagune arduraduna:
3.800€

Administratiboaren ordu gehikuntza (4 ordu 15'): 4.000€
Itsasoko areto balioanitz eta teilatua: 153.000€

Laburbilduz, Itsasoko obra ordaindu, bideetan 30.000€ inbertitu, birrintzailea erosi, parte-hartze prozesuak ordaindu eta bestelako gastu guztiak ordainduta, **89.000 €** geratzen dira beste inbertsio batzuei ekiteko.

2019KO AURREKONTUAK: SARRERAK		Data:
Partida		B. betiko aurrek.
2.0000.112.000.00.01 2019	LANDA ONDASUNAK	2.724,41
2.0000.112.000.00.02 2019	HIRI ONDASUNAK	29.907,22
2.0000.113.000.00.01 2019	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILG. GAINEKO ZERGA	16.061,03
2.0000.114.000.00.01 2019	HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GA	0,00
2.0000.130.000.00.01 2019	ENPRESA IHARDUERAK	3.600,00
2.0000.282.000.00.01 2019	ERAIKUNTZA, INSTAL. OBREN GAINEKO ZERGA	100,00
2.0000.310.000.00.01 2019	ETXEZ ETXEKO ZABOR BILKETA	16.261,93
2.0000.310.000.00.03 2019	UDAL HILERRIAK	400,00
2.0000.310.000.00.15 2019	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	100,00
2.0000.310.334.00.11 2019	UDALEKUETAKO KUOTAK	400,00
2.0000.310.335.00.11 2019	EUSKARA IKASTAROAK	960,00
2.0000.310.338.00.16 2019	JUBILATUEN BAZKARIKO SARRERAK	960,00
2.0000.310.341.00.11 2019	PILATES ETA ZUNBA IKASTAROAK	3.600,00
2.0000.312.000.00.01 2019	HIRIGINTZ BAIMENAK EMATEA	100,00
2.0000.320.000.00.99 2019	HERRI BIDEEN ERABILERA	1.000,00
2.0000.321.000.00.09 2019	ERRIEL, ZUTOIN, KABLE, TXIMELETA E.A.	11.000,00
2.0000.381.000.00.01 2019	ISUNAK	100,00
2.0000.388.000.00.06 2019	INPREBISTOAK ETA KURTSOEN KUOTAK	1.000,00
2.0000.400.000.00.01 2019	ITUNDU GABEKO ZERGETAKO PARTAIDETZA	161,00
2.0000.420.000.00.01 2019	ITUNDUTAKO TRIBUTUETAKO PARTAIDETZA	194.908,00
2.0000.420.000.01.99 2019	LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZA	1.400,00
2.0000.420.000.02.99 2019	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	9.000,00
2.0000.420.230.00.99 2019	GIZARTE ZERBITZUEN LEGEA GARATZEKO FUNTS	100,00
2.0000.420.337.20.99 2019	HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO SISTEMA	960,00
2.0000.471.000.00.01 2019	HITZARMENA: REDESA	10.000,00
2.0000.540.000.00.01 2019	ERRENTAK	3.471,12
2.0000.710.000.00.01 2019	UEMA-EUSKARA PLANA	100,00
2.0000.710.162.20.03 2019	IRISGARRITASUNA DIRU-LAGUNTZA	10.000,00
2.0000.710.920.00.01 2019	UDALEKO OBRETARAKO LEADER 2018 LAGUNTZA	96.430,56
2.0000.720.163.10.01 2019	FORU ALDUNDIKO LAGUNTZA LANDA BIDEAK	30.000,00
2.0000.720.330.00.99 2019	TOKIKO PROGRAMAREN DIRU-LAGUNTZA	1.100,00
2.0000.722.171.00.01 2019	GOIMEN LANDAOLA DIRULAGUNTZA	0,00
2.0000.722.334.00.01 2019	HERRI-BIZITZA DIRU-LAGUNTZA	3.000,00
GUZTIRA:		448.875,26



2019KO AURREKONTUA: GASTUAK		Deia:
Partida		Hau ko bezero.
1 0000.100.912.00.01 2019	ONARRIZKO ORDAINKETAK. GOI ZUZENDARITZA	16.600,00
1 0000.120.920.00.01 2019	ADMINIST. OROK. ONARRIZKO ORDAINKETAK	6.146,10
1 0000.121.920.00.01 2019	ADMINIST. OROK. DESTINO OSAGARRIA	10.142,14
1 0000.130.163.40.01 2019	PERTSON. LABOR. ONARRIZ. ORDAINKETAK	13.756,26
1 0000.131.929.00.01 2019	ADMIN. OROKO. ALDARTEKO LABORALA-IZASKUN	1.223,88
1 0000.141.163.40.01 2019	PEOIAREN KONTRATAZIOA	511,88
1 0000.141.230.00.01 2019	GIZARTE EKINTZAREN BESTELAKO PERTSONA	4.783,27
1 0000.141.330.00.01 2019	UDALEKUTETAKO BEGIRALEEN KOSTUA	640,69
1 0000.141.336.00.01 2019	EUSKARA IRAKASLEA	2.400,00
1 0000.141.920.00.01 2019	ALDI BATERAKO ADMINISTRARIA	20.600,00
1 0000.160.163.40.01 2019	GIZARTE SEGURANTZA, KOMUN. GIZAR. ZERB.	4.624,41
1 0000.160.163.40.04 2019	ELKARKIDETZA-NARRASPE	263,86
1 0000.160.230.00.01 2019	GIZARTE SEGUNTZA GIZARTE LANGILEA	1.468,40
1 0000.160.330.00.01 2019	GIZARTE SEGURANTZA, BEGIRALEAK	200,00
1 0000.160.336.00.01 2019	GIZARTE SEGURANTZA EUSKARA IRAKASLEA	1.312,00
1 0000.160.920.00.01 2019	GIZARTE SEGURANTZA, ADM. OROKORRA	3.539,58
1 0000.160.920.00.04 2019	ELKARKIDETZAREN KUOTAK	470,87
1 0000.160.920.00.06 2019	LAN PREBENTZIOARAKO ZERBITZUA	1.000,00
1 0000.160.920.01.01 2019	GIZARTE SEGURANTZA ALD BATERAKO ADMINIST	6.200,00
1 0000.162.912.00.05 2019	GOI MAILAKO KARGUEN ASEGURUA	0,00
1 0000.163.163.40.05 2019	KOMUN. ETA GIZARTE. ASEGURUAK-NARRASPE	146,28
1 0000.163.336.00.05 2019	EUSKARA IRAKASLEA BIZITZA ASEGURUA	100,00
1 0000.163.920.00.05 2019	ADMINISTRATIO OROK. ASEGURUAK	419,01
1 0000.201.926.00.01 2019	ELIZAREKIN HITZARRENA	1.200,00
1 0000.206.926.00.01 2019	KIZKITZAKO ANTENAREN ARRENDAMENTUA	200,00
1 0000.210.464.00.01 2019	HIRIBIDE PUBLIKOEN AZPEIG. ETA OIND. NATU	6.500,00
1 0000.211.920.00.01 2019	ADMIN. OROKORR. KONPON. MANTEN.	2.500,00
1 0000.211.928.00.01 2019	ZEHAZGABE ETA USTEGABE ERAKIN ETA BEST.	100,00
1 0000.212.163.40.01 2019	KOMUNIT. ETA GIZARTE. ZERB. MAKIN. INSTA	4.500,00
1 0000.212.164.00.01 2019	HILERRIAREN MAKIN. INSTAL. TRESNERIA	700,00
1 0000.212.920.00.01 2019	ADMIN. OROKOR. MAKIN. INSTAL. TRESNERIA	2.100,00
1 0000.214.926.00.01 2019	KOMUNITATE GIZ. ZERB. ALTZ. ETA LANABES	100,00
1 0000.216.920.00.01 2019	ADM. OROK. EKIPAMENDU INFORMATIKOA	300,00
1 0000.220.920.00.01 2019	ADMIN. OROK. MATERIAL INBENT. EZINA	2.000,00
1 0000.221.163.40.04 2019	KOMUNIT. GIZAR. ZERB. ERREGAIKAK	1.000,00
1 0000.221.163.40.06 2019	KOMUNIT. GIZAR. ZERB. ARROPAK	260,00
1 0000.221.163.40.11 2019	TRESNAK ETA ERREMIKAK	320,00
1 0000.221.163.40.99 2019	AUZOLANA	3.000,00

41	1 0000.221.161.00.02 2019	UR HORNIDURA-KONTSUMOA.	300,00
42	1 0000.221.166.00.01 2019	KOMUNIT. ETA GIZAR. ENERGIA ELEKTRIKOA	9.000,00
43	1 0000.221.920.00.01 2019	ADMIN. OROKOR. ENERGIA ELEKTRIKOA	300,00
44	1 0000.221.920.00.03 2019	ADMINISTRATIO OROKORREKO GASA	1.600,00
45	1 0000.222.163.40.01 2019	KOMUNIT. GIZAR. ZERB. TELEFONO GAST.	360,00
46	1 0000.222.920.00.01 2019	ADMIN. OROKORREKO TELEFONO GASTUAK	1.600,00
47	1 0000.222.920.00.02 2019	ADMIN. OROK. POSTA BIDEZKOAK	400,00
48	1 0000.222.920.00.05 2019	ADMINISTRATIO OROKORRA. INFORMATIKOAK	7.000,00
49	1 0000.223.920.00.01 2019	ADMIN. OROKORREKO GARRAIKAK	100,00
50	1 0000.224.163.40.02 2019	KOMUNIT. GIZART. ZERB. IBILGAILUA	100,00
51	1 0000.224.920.00.01 2019	ADM. OROK. ERAKIN ETA LOKALEN ASEGURUA	1.800,00
52	1 0000.224.920.00.99 2019	ADMIN. OROKOR. BESTELAKO ARRISKUA	600,00
53	1 0000.226.332.10.99 2019	KULTUR. SUSTAPEN. ZENBAI GASTU.	1.000,00
54	1 0000.226.912.00.02 2019	GOBERNU ORGANEN PROTOKOLO HARRETAK	600,00
55	1 0000.226.920.00.03 2019	ADMIN. OROKOR. PUBLIZITATE ETA PROPAG.	1.300,00
56	1 0000.226.920.00.04 2019	ADMIN. OROKOR. JURIDIKO GASTUAK	1.000,00
57	1 0000.226.926.00.06 2019	ADINEKOEN TAILERRAK	2.600,00
58	1 0000.227.161.00.02 2019	HIRIGINTZAREN AHOLKULARITZA GASTUAK	12.000,00
59	1 0000.227.162.30.99 2019	KONPOSIGUNEKO LANAK	3.800,00
60	1 0000.227.164.00.03 2019	HILERRIKO GASTUAK	700,00
61	1 0000.227.230.00.11 2019	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	9.000,00
62	1 0000.227.311.00.01 2019	ARRATOI GALTZE ZERBITZUA	1.600,00
63	1 0000.227.311.00.99 2019	PODOLOGO KONTSULTA	600,00
64	1 0000.227.326.00.04 2019	UDALEKUEEN IKASTAROKAK	4.600,00
65	1 0000.227.341.00.04 2019	KIROL IKASTAROKAK (PILATES ETA ZUNBA)	10.000,00
66	1 0000.227.342.00.09 2019	ENTITATEAREN ALDEKO BILKETA. FRONTOIA	300,00
67	1 0000.227.491.00.99 2019	DATUEN BABESERAKO LANAK	1.000,00
68	1 0000.227.920.00.01 2019	ADMIN. OROK. GARBIKETA GASTUAK	7.200,00
69	1 0000.227.920.00.08 2019	BILKETA ZERBITZUAK ADMINISTRATIO OROKORR	0,00
70	1 0000.227.920.00.99 2019	ADM. OROKO. KANPOKO BEST. LANAK-BERTA.	3.600,00
71	1 0000.230.920.00.01 2019	ADMIN. OROKORRAREN DIETAK ETA DESPL.	200,00
72	1 0000.231.912.00.01 2019	GOBERNU ORGANEN DIETAK ETA DESPLAZAMEND	200,00
73	1 0000.238.912.00.01 2019	GOBERNU ORGANEN BESTELAKO KALTE ORDAINA	200,00
74	1 0000.238.920.00.01 2019	BESTE INDEMNIZATIO BATZUK	200,00
75	1 0000.417.162.10.01 2019	MATXIMENTAKO ZABORRA	250,00
76	1 0000.417.166.00.01 2019	MATXIMENTAKO ARGIA	160,00
77	1 0000.417.926.00.02 2019	MATXIMENTAKO BESTELAKO GASTUAK.	600,00
78	1 0000.420.230.00.00 2019	FORU DIPUTAZIOA. TELEALARMA ZERBI.	300,00
79	1 0000.421.162.10.01 2019	SASIA MANKOMUNITATEARI TRANSFERENTZIAK	16.180,39
80	1 0000.421.928.00.01 2019	GOIEKIRI TRANSFERENTZIAK	3.000,00
81	1 0000.422.321.00.01 2019	SAN ANDRES IKASTETXEO MANTENIMENDUA	600,00
82	1 0000.422.321.00.02 2019	BALANTZATEGI IKASTETXE MANTENIMENDUA.	600,00
83	1 0000.422.330.00.01 2019	GORUNTZ DANTZA TALDEARI TRANSF.	300,00
84	1 0000.481.230.00.00 2019	HIRUGARREN MUNDUARI TRANSFERENTZIA	1.600,00
85	1 0000.481.230.00.01 2019	GIZARTE ONGIZATE ARLOKO LAGUNTZ. TRANSFE	1.800,00
86	1 0000.481.323.00.00 2019	HEZKUNTZA ARLOKO LAGUNTZEN TRANSFERENTZI	300,00
87	1 0000.481.330.00.01 2019	KULTURA ARLOKO LAGUNTZEN TRANSFERENTZIA	1.000,00
88	1 0000.481.336.00.00 2019	EUSKARA ARLOKO LAGUNTZEN TRANSFERENTZIA	1.000,00
89	1 0000.481.338.00.02 2019	HERRIKO FESTEJARAKO TRANSFERENTZIAK	8.000,00
90	1 0000.481.340.00.00 2019	KIROL ARLOKO LAGUNTZEN TRANSFERENTZIAK	700,00
91	1 0000.481.410.00.01 2019	GOIMENI TRANSFERENTZIAK	3.000,00
92	1 0000.600.928.00.01 2019	KREDITU GLOBALAK	0,00
93	1 0000.601.464.00.01 2019	BIDEETAN EGOKITZE LANAK	30.000,00
94	1 0000.601.464.00.02 2019	BIDEGORRIAREN 2. FASEKO TERRENO EROSKETA	0,00
95	1 0000.622.920.00.01 2019	ARETO BALIOANITZA	153.000,00
96	1 0000.622.920.00.01 2017	BIRRINTZAILEA LANDAOLA	4.727,46
97	1 0000.648.920.00.01 2019	ITSASO BEREIZKETAKO EPAIKETAK	15.000,00
98	1 0000.780.161.00.01 2019	UR HORNIDURA-ESKAERAK	1.000,00
99	1 0000.780.410.00.01 2019	BASERRI FATXDEN PINTAKETA.	1.000,00
100	GUZTIRA		448.876,28

3- Inbertsio berrien aukerak planteatu dira, lehendik aurreikusitakoak zerrendatu ondoren eta baita sortu diren egoera berriak ere jasoz:


• **Azpiegiturak:**

- Itsasoko udala eta ostatuaren ganbara eta teilatua (jada martxan, Leader 2018k lagunduta)
- Alegiako bulebarizazioa (aurreproiektua egin, Leader 2019an eskatzeko)

• **Herri-bideak: lehengo herri-bide**

historikoak (edo ordezkokoak) erabilgarri bihurtzen joan, herri lotura eta irteera alternatiboak izateko eta lehen ditugunak mantendu, herritar guztiak etxebizitzara sarbide erosoan izan dezaten. Lehentasunak:

- Goiti-Kamio (Madura Itsasorekin lotuz)
- Itsaso-Mandubia: Altzigarragako luizia
- Miraballes-Iturrita bidea hobetu
- San Lorentzoko luizia
- Ibur-berrirako trama publiko egin



● **Bukatzeko dauzkagunak:**

- Bide inklusiboetan bankuak eta mahaiak jartzea (S Lorentzo eta Alegia-Uribar)
- Itsaso-Alegia markatzen bukatu eta seinalitika jarri
- Itsaso-Kizkitza-Mandubia markatu, posteak aldatu eta berriak jarri
- Lehengo ibilbideen markak kendu
- Itsason panelak jarri obra bukatutakoan
- Elizako panel berriak inprimatu eta kokatu. Triptikoak inprimatu eta zabaldu

● **Aurreko Batzarretan aipatu diren beste proiektu batzuk gogorazi dira:**

- Itsasoko parkearen irisgarritasuna. Parkea beste nonbaiten kokatzea baloratu, plazako berdegunearen zati batean? eta oraingo tokian kirol-kantxa planteatu?
- Alegiako Elkartearen goiko solairua eta irisgarritasuna
- Argiteria leden bidez ordezkatu (berariazko deialdia)
- Alegiako frontoiko argitze sistema, sareak... (kirol instalakuntzetarako deialdia)
- Etxebizitza berrien aurreikuspena (parte-hartze proiektuarekin lotua) Goiko Ostatuaren proiektzioa teknikoki baloratu. Eta Alegian ere. Alokairu eskaerak.
- Ostatuko etxebizitza egokitu
- Itsusturrira espaloia, argiteria (posible balitz)

4.- Bost taldeetan elkartuta jarraian datozen irizpideak eztabaidatu dira aurreragorako egitasmoen oinarriak jartze aldera eta norberak lekarkeena jaso:

1.-Garrantzitsua iruditzen da lehengo herri-bide historikoak (edo ordezkako) kotxeentzat erabilgarri bihurtzen joatea, herri lotura eta irteera alternatiboak izateko eta lehentasuna Kamiora dela dio gehiengoak. Teknikoki zein den proiektu egokiena baloratzea eskatzen da: Goititik ala S Lorentzotik.

2.- Etxebizitza politika zein izan behar duen aurreikusteko prozesu parte-hartzailea martxan jartzea beharrezkoa ikusten da eta interesa handia da.

3.- Itsasoko jolas-parkea plazako berdegune zati batean kokatzea eta oraingo tokian kirol-kantxa planteatzea ideia bezala egoki ikusten da.


4.- Landaola 2020rako, lehentasuna Kizkitzako pagadia zahar-berritzeari eman zaio lantalde guztietan. Bigarrenik, Udalak lursail publikoak izateko erosteko aukerak lantzeari. Eta herriko produktuak sustatzeko proiektuaren lanketarekin poliki poliki has gaitzkeela iruditzen da (lan taldea osatu, nutrizio ikastaroa, sukaldaritza ikastaroa bertako produktuekin...)

5.- Norberak lekarkeena:

- Desfibriladoreak aurrekontuetan kontenplatu
- Udaletxea eta Eliza arteko berdegunea birpentsatu
- Alegia-Uribar bide berdean zuhaitzak landatu eta fauna/flora informazioa jarri
- Hainbat baserri bazter zikintzen ari direnez, irtenbideren bat bilatu?

Itsason 2019ko otsailaren 20an





**ITSASOKO
UDALA**
(GIPUZKOA)

HERRI BATZARRA ITSASON
Otsailaren 16an, larunbata, 19:00etan
AKTA
Itsasoko Udal Batzordea